



Allande Boutin

♦ FRANCE 3KO KAZETARIA

Hurrengo helmuga, kale gorria?

“ESPazio GUTTIAGOREKIN, zuen herrialdeak berdin-berdin presente izanen dira gurean!” erran digute.

Hedabideetan, batez ere prentsa idatzian eta telebista publikoetan krisia dela kausa, iragarkiak ttipitzen direlako, informazio kontsumoa aldatzen delako, neurriak hartu behar dira. Eta noski, edonon, goiz ala berant, kazetarien eta teknikarien kopuruen murrizketei buruzko zurrumurruek hedatzen dira kasu “hoberenatan”. Aipatzen dira, hasiera batean behintzat, erredakzioetatik borondatezko abiatze plan sozialak. Eta epe motzetan, kobertura mediatikoen “arintzea” proposatzen da ere bai.

Interesgarria da urriaren 14ko *El Paisen*, irakurleen arartekoaren artikulua. Galiziar buruzko ordura arte eskaintzen zen eguneroko koadernoaren desagerpenaren inguruan sorturiko irakurleen kezkek aipatzen ditu, orain eskatzen diren bi orrialdeen truke. Lasai izan daitezen galiziarrek! “Irakurleekiko egunkariaren konpromisoa ez da aldatzen. Tratamendu editoriala ttipiagoa izanen da, baina Galizian, gure lanaren espiritua mantenduko dugu” dio arartekoak.

Bada, hau irakurri eta, France 3ko zuzendariek *El Paiseko management* eskola berdina egin dutela pentsatu dut. Ezen, gurean, Omiasaindu eta Egu-berriko oporren kari, frantses kate publiko erregionalaren “Hego mendebaldea” deitu

eremuan, *France 3 Euskal Herri* bezalako beste hamabi albistegi lokalak suspendituko baitituzte.

Krisia! Baina lasai! Akitanian, bertako herrialdetxoak (Biarno, Ipar Euskal Herria, Perigords) ez omen dira entzule-ikusleen egunerokotik desagertuko! Bordeleko berri sailetan ikuspenik izango dute! Hau da, Parisko zuzendaritzatik oso kezkatuta dauden zinegotziei (senatari, diputatu, kontseilu orokor, auzapez...) eman izan zaien erantzuna.

*El Paisen*aren antzekoa! Ipar Euskal Herriko eskuinetik ezkerrean, zentristak, berdeak eta abertzaleak barne, eremu politiko nolaz sindikatu eta mugimendu herrikoiaren sosten-gu zabala adierazia izan arren, ezer ez dute aldatuko: hiru asteotan bertako informatibok etengo dira. Informazioak oporretan izango dira! Hau notizia! Eta ororen buru, berzentralizazio prozesu bat sumatzen da. Periferien baztertzea. Hau ez bada, zergatik bertako albistegiak kaltetu? Nola erran daiteke herrialdeekiko konpromisoa atxikitzen dela baldin eta eguneroko zazpi minutu eta 40 segundotako albistegi laburra 90 segundotako erreportaje batez trukutzen bada? Bertako hizkuntzen presentzia ttipia erregio mailan (albistegi lokaletan ez bezala) ziurtatzen ez delarik?

Eta zer izango da hurrengo helmuga? Kale gorria?! ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto



Doinua: ETAre
su-etenetik.



ETB analogikoan

Marca, Popular TV erretoreak prediku Antena 3, Nitro, Neox bat dela nork ententitu? La tienda en casa baino hobe ezer ez aditu Interekonomiako frankista jende aditu. Erabakia ez zaigu arraroa iruditu Nafarroan LTD-k hainbeste eskaintza ditu nonbait ETB-rentzat ez dela tokirik gelditu.

Pizten duzu telebista, tapatzen duzu sabela, analogikoan sartzen zara, isilpean gela eta konturatzen zara ETB-3 falta dela. Berdin du! Badakizu Clan egun osoz dagoela. Wert-ek duela bi aste eskatu zuen bezela haurrak espainolizatu beharko liratekeela... Nafarroan aspaldi da horretan ari direla.

Diru laguntzarik ez da iristen guretara eskualdetako euskal komunikabideetara. Ley del Vasquece-k egiten du hiru puska izara txarrena da ohitu egin garela babes faltara! Politikak aldatzeko kapaz ez baldin bagara, ahantzuraren, herioren (nahiko luketen erara) izango da gero eta lagun hobea euskara. ■